



Ankulegi

Antropologia Elkartea
Asociación Vasca de Antropología
Association Basque d'Ethnologie

1.697 posta kutxatila / apdo. de correos /
boîte postale
E-20080 Donostia-San Sebastián
Internet: <<http://www.ankulegi.org/>>
Posta elektronikoa: <kongresoa2008
abildua ankulegi puntu org>

ANTROPOLOGIAREN XI KONGRESUA ESPAINIAKO ESTATUKO ANTROPOLOGIA ELKARTEEN FEDERAZIOAREN (F.A.A.E.E.) ESKUTIK

“ERRONKA TEORIKOAK ETA PRAKTIKA BERRIAK”

Donostian, 2008ko irailaren 10-13

Donostian, 2007-03-28an

LEHENENGO ZIRKULARRA ETA PLANTEAMENDU TEORIKOA

Lehenengo zirkularra

Donostian egingo dugu, 2008ko irailaren 10etik 13ra bitartean, Espainiako Estatuko Antropologia Elkartearen Federazioak deitu eta Ankulegik (Antropologiaren Euskal Elkartea) antolatu duen hurrengo antropologia-kongresua. Estreinako zirkular honekin batera bidaltzen dizuegu gure planteamendu teorikoa. Planteamendu hori euskarri izango da bai gaikako hitzaldiak antolatzeko orduan bai sinposioak, zein lan-mahaiak nola posterrak egitean.

Kongresuaren aurkezpen ofiziala eta berori egituratuko duen ardatza den gaiaren aurkezpena izateaz gain, aurreneko zirkular honen helburua da dei egitea sinposioen eta lan-mahaien proposamenak aurkezteko.

2007ko martxoaren 20an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea.

Aurreko kongresuetako bideari jarraituz, sinposioen proposamenak hautatzean ondoko irizpide hauek hartuko ditugu kontuan:

- Proposamena F.A.A.E.E. osatzen duten elkarte bat baino gehiagoren ordezkariak aurkeztua izatea (ikus <<http://www.ankulegi.org/baliabideak-recursos-ressources/enlaces.html>>).
- XI. Kongresuaren edukiei begira, gaiak egokiak izatea.

Ondokoa ere adierazi nahi dizuet: sarean jartzeko ari garela orri bat prestatzen, luze gabe abian egotea espero duguna; eta asmoa da espazio birtual horrek erakustea kongresuaren gaineko informazioa, alderdi guztiei buruzkoa

Aldi berean, internet bidez kongresuan izena emateko bidea emango du web orri horrek, bai eta hirian ostatu hartzeko aukeren gaineko informazioa, kongresuarekin batera egin daitezkeen jardueren berri ematea, etab.

Nahi genuke zuen interesekoa izatea gure proposamena, eta zuek ere parte hartzea XI. Kongresuan.

Adeitasunez,

Carmen Díez Mintegui.

Antolaketa Batzordearen ordezkapenean idazkari nagusia.

<kongresoa2008 abildua ankulegi .org>

Oharra: Arren, zabal ezazue deialdi honen berri Kongresua interesekoa izango zaien pertsonen eta erakundeen artean. Horretarako, pdf euskarrian jarri dugu testu hau helbide honetan: <<http://kongresoa2008.ankulegi.org>>.

Plateamendu teorikoa

Antropologiaren XI. Kongresua balio anitzeko ekitaldi gisa proposatzen dugu. Pentsamendua eta praktika uztartuz ekitaldiak arazoak, garaiak eta lekuak erabiliko ditu gure garaiko sintesi adierazkor gisa. Helburu horri begira hiru hurbilbide hauek jorratuko ditugu: kritika, hausnarketa eta praktika. Hurbilbide kritikoa aztertuko dugu, antropologiak duen moldatzeko gaitasunaren argira, ekintza soziala jasotzeko, aztertzeko eta interpretatzeko. Diziplinen arteko hausnarketa egingo dugu, antropologiak metatu duen jakintzan oinarrituta. Hurbilketa etnografiko eta teorikokoek sortutako proposamenetan datzan praktika jorratzeko asmoa dugu.

Gaurko antropologiaren helburua da alderdi sendoak badituela azaltzea eta proposamen kritikoa egitea, ahuleziak gainditzeko. Kongresuak foro irekia izan nahi du, asmo eta hurbilketa askotako adierazpenek debatea eragin dezaten. Horretarako eskenatoki asko eskainiko dira diziplinentzat funtsezkoak diren eremuetan aurrera pausoak bideratzeko eta interpretazio berriak behar dituzten eremuetan pentsatzeko. Hala, aldaketa garaietan, pentsatzeko eta esku hartzeko erreferente izango dira. Gertuko eta urrutiko arazoan egungo konplexutasunak premiazkoak ditu irudimena eta sormena. Horiek, antropologiaren tradizio teoriko eta metodologiko trinkoak baliatuz, eremu berriak zabalduko dituzte, aztertzeko, ikertzeko eta lan egiteko.

Diziplinen arteko eremura hurbiltzea balio gisa sortu da, arazoak eta esku hartzeak erkatzea bideratzeko teorian zein praktikan. Horrek jakintza antropologikoan aurrera joatea eskatzen du beste diziplina batzuetako ekarpenen eskutik, antropologia bera ahuldu gabe. Estrategia nekeza da. Hor erakusten digu etnografiak antropologiaren tresna ahalsua eta errotua dela, batez ere, diziplinen arteko hurbilketan gaurko problematikei sarbidea ematea planteatzen denean. Globalizazioaren zamak agerian utzi du tokian tokikoa eta globala artikulatu beharra dagoela, bai zuzeneko eraginetan bai globalizazioaren interpretazioen erabileran, atzean duen ideologia bitarra auzitan jarritz. Hala ere, tradizio etnografikoaren ikuspuntu zabal eta anitzetik egiten den azaleko

hausnarketak argi erakusten du lokala eta globala etengabe daudela presente errealitate soziokulturalean. Hortik dator etnografiaren alorren gaineko gogoetak duen garrantzia, gure garaiko zeinuen argitan.

Erronka bihurtu da antropologia praktikaren eremura eramateko presa, beste gai batzuetan bezala, eta horrek diziplinaren oraingo egoerarekin zuzeneko lotura du, eremu akademikoaren baitan nahiz kanpoan. Erronka horrek hainbat helburu ditu: antropologiak sendo hausnartu dituen eremuetako interbentzioak; garrantzi txikiagorik ez duten eremuak, geroago jorratu dituen arren; desberdintasunen adierazle berriak aurkitzea, zein agindu eta tradizio kulturaletan oinarrituta, bat ez datozen giza eskubideekin, eta ez eta gizartearen eskaera eta premia berriekin ere; lekuz aldatu diren identitateak azaleratzea eta analizatzea; aztertzeke alor berriak definitzea, etengabe azaleratzen ari dena ezagutu ahal izateko. Kongresuak ateak zabalduko dizkie hurbilketa metodologiko berriei, tradizio etnografikoa jaso eta modu berriak eskaintzen dituztenei hain zuzen; hartara, kualitatiboa eta kuantitatiboa, bisuala, birtuala eta materiala artikulatzen duten bitartean, antropologiaren zerumuga zabaldu, lagundu eta kolokan jarriko dute, etenik ez duen orainaren etorkizunean kokatzeko.

XI. Kongresua, hasiera batean, elkartzeko, eztabaidatzeko eta ikuspuntua zabaltzeko tokia izango da. Hala, bideratu egingo ditu XXI. mendearen lehenengo hamarkadako errealitate konplexu eta ezberdinei buruzko zenbait debate, jakintza antropologikoak sustraitzeko eta sustraietatik askatzeko duen gaitasunetik abiatuta.